

Jatetxeen aro berria

Jatetxeak janariak eta edariak kontsumitzeko salmenta-gune bat baino gehiago dira. Pertsonen arteko topagune dira, hitz egiteko, bizipenak partekatze, harremanak eraikitze, esperientzia berriak bizitzeko tokiak dira. Jatetxeetara joatea aisialdian familiarekin, bikotekidearekin edota lagunekin gehien egiten den ekintza da.

Azken urteetan, eta, bereziki, Covid-19aren agerraldia eta gero, aldaketa ugari eman dira gizartearen, eta horrek ohitura aldaketak sortu ditu jatetxeetan. Otorduak egiteko ordutegiak aldatu egin dira, jaki osasuntsuak aukeratzen dira edota teknologia berriak erabiltzen dira kontsultak egiteko. Jatetxeek bezeroaren beharretara egokitzea ezinbestekoa dute aurrera egiteko, eta zeregin horretan murgildu dira.

Negozio-unitate berriak



Jaki elaboratuak etxera eramaten dituzte Maruka-gastro jatetxeen. Argazkia: Maruka-gastro

Menuaren ordainketa ere digitalki egiten da gehienbat, eskudiruaeren kaltetan. Are gehiago, zenbait jatetxetan kontua ordaintzeko eta eskatzeko aplikazioak jarri dira abian. Gerekak ordainketa digitalaren abantailak azpimarratu ditu: "aplikazio horiek prozesuak azkartzea eragiten dute eta presaka dabiltzan bezeroek ez dute itxaron beharrik ordainketa egiteko. Askotan, deserosoa izaten da ordaintzeko zain egotea, eta horrek bezeroarengan eragiten du".

Bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal berriak sortu eta indartu egin dira. Sare sozialak eta webguneak kontsumitzailea negoziara gerturatze, bitartekari bilakatu dira. Erreserbak online egiteko aukera ere zabaldu egin da. Teknologia Maruka-gastro jatetxearen erakusleho bihurtu dela nabarmendu du Gerekak: "gure eskaintza, ordutegia, karta edota menua ageri dira gure sare sozialetan edo webgunean. Horrela, bezeroak une oro informazioa eskura dauka. Erreserbak online egiteak ere gure bezero-sarea sortzeko aukera ematen digu".

Jatetxea etxean

Azken urteetan asko hazi da janaria etxera eramateko zerbitzua. Orain arte janari azkarrari lotu izan zaio zerbitzu hori, baina pandemia dela-eta erabat egonkortu da jatetxeetan. Pentsaezinak ziren jakiak jatetxeetan prestatu eta etxetara bidaltzen dira: elaborazio handiko platerak, zein parrilan erretako haragiak eta arrainak. Txuletak, zapoak edota bisiguak erretzera ausartu dira zenbait jatetxe.

Gerekak zera gaineratu du: "Etxerako zerbitzuak bezeroen leialtasuna bultzatzen du eta beste jende mota batengana iritsi ahal izan gara. Leku publikoetan eroso sentitzen ez den jendearekin harreman-sare berriak eraiki ditugu. Gu Getarian kokatuta gaudenez, bertako janaria saltzea gustatzen zaigu: olagarroa, bertako arraina... Etxerako zerbitzua janari azkarrarekin lotzeko joera aldatzen ari da. Gaur egun landutako platerak etxera eramateko eskaria handia da, eta jendeak gustura jaten ditu".

Esan daiteke, beraz, etxerako zerbitzuari esker bezeroen inguruko datu gehiago eskuratzen direla, kostuak murriztu egiten direla eta bezero berriak lortzeko aukera handitu egiten dela.

Aipatzekoa da, bestalde, goi-mailako jatetxeek ere negozio-unitate berri bat jarri dutela abian: jatetxea bera etxera eramateko zerbitzua. Honek jatetxeko esperientzia etxeko sukaldean gozatzeko aukera eskaintzen du. Bezeroak hautatzen du eguna eta menua. Jatetxeko zerbitzariak eta sukaldariak etxera bertaratzen dira beharrezko gauza guztiekin: tresneria, jakiak, mahai-zapia... Bezeroak espazioa jarri behar du soilik eta beste guztiaz jatetxea arduratzen da.



Jon Gereka, Maruka-gastro jatetxeko arduraduna. Argazkia: Maruka-gastro

Etorkizuneko jatetxeak

Digitalizazioa eta eskaintza osasuntsua oinarri, jatetxeen kontzeptu tradizionala aldatu egin da. Protagonistak, ordea, betikoak dira, bezeroak. Gizartearen aldaketek baldintzatuko dute negozio-unitate berri honen iraungitze-data.

Jendeak tabernetara joaten jarraituko du, baina teknologiaren garapenak etxerako janari-zerbitzua indartu egingo du. Gerekak honela ikusten du jatetxeen etorkizuna: "Jendeak ordenagailutik egingo du eskaera eta zerbitzu osoa teknologizatuta egongo da".



Maruka-gastro jatetxea garai berrietara egokitu da. Argazkia: Maruka-gastro

Sinonimoak

Antonimoak

Denbora librean		Gutxiago	
Asko		Zaharrak	
Elikagai		Azpian	
Derrigorrezkoa		Atzean	
Telefonia		Itxi	
Izurik		Desabantailak	
Arazoen		Lasai	
Sendotu		Erosoa	
Fideltasuna		Urruntzeko	
Ohitura		Motelari	
Txikitu		Moderno	
Martxan			
Aukeratzen			
Bakarrik			
Guztia			

*Letra larriz idatzi hitz guztiak